



Ajangizko Udala

**AJANGIZKO UDALAK 2009KO MARTXOAREN 10EAN
OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko martxoaren 10ean arratsaldeko 8:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotzietan.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

**1.- EUSKADIKO PORTU, UBIDE ETA BIDEETAKO INGENIEARIEN KOLEJIOAK,
AJANGIZKO UDAL BATZAK 2008KO ABENDUAREN 22AN ONARTUTAKO
AJANGIZEN ESTALITAKO FRONTOI BERRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN
ERREDAKZIORAKO KONTRATUA ESLEITZEKO PROIEKTUEN LEHIAKETA
PROZEDURA MURRIZTUAREN HASIERA ETA BERAU ARAUTUKO DUTEN
BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULAR ETA TEKNIKOEN
ONARPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA, BEHAR
BADA.-**

Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingenierien Kolejioak urtarrilaren 13ko 7. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ajangizko Udal batzak 2008ko abenduaren 22an onartutako Ajangizen estalitako frontoi berria eraikitzeako proiektuaren erredakzioa eta kasua bada lanen zuzendaritzarako kontratua esleitzeko proiektuen lehiaketa prozedura murriztuaren hasiera eta berau arautuko duten baldintza administratibo partikular eta teknikoaren onarpenaren aurka jarritako errekurtsoa **IKUSITA**.

Errekurtsio horretan Bideetako Ingeniariek kirol erabilpenerako diren eraikuntzak proiektatu eta zuzentzeko eskumen tekniko eta legala dutela aipatzen dute, eta ondorioz, eskaintzak aurkezteko epea eten dadila eskatzen dute, baita erabakia eta baldintza



Ajangizko Udala

administratiboen agiria aldatzeko, bertan Portu, Ubide eta Bideetako ingeniariak ere sartuz eta deialdia berriro argitaratu daitela eskaintzak aurkezteko epe barri bat zabalduz.

Lehiaketa arautzen duen baldintza teknikoen agiriak II. atalean azaltzen duenaren arabera, frontoiko eraikuntzaren erabilpena kirol instalazioa izateaz gain orotariko gunea eta estalitako jolasgunea ere izango da. Jarduera desberdinetarako (kultura, herri jarduerak, jolasak...) gune funtzional bat izango da kirol gunea izateaz gain.

Errekurtso jartzaileak, bai arkitekto zein ingeniariak Eraikuntza Legeko 10.artikuluaren arabera konpetentziadun direla argudiatzeko aipatu Legeko 2.1.c) artikulua jasotzen dituen eraikuntzetako baten aurrean gaudela defendatzen badu ere, lege bereko 2.1.a) artikuluan jasotako eraikuntzetako baten aurrean gaude, esan bezala proiektatu beharreko eraikuntzak ez baitu kirol erabilera bakarrik izango: erabilera orotariko gunea espero da, kultura eta aisialdirako gune bat. Ondorioz, izango duen erabilera administratibo eta kultural hau Eraikuntza legeko 2.1 artikuluko a) atalean jasotzen den taldearekin zuzenean erlazionatuta dago eta beraz proiektatu eta zuzentzeko eskumena arkitektoei dagokie.

Aipatutakoaz kanpo, kirol erabilera soileko eraikuntza izango balitz ere, baldintza partikularren agiriak ez ditu Bideetako ingeniariak kanpo usten eta horrekin ez du beraz lehiaketa librearen aurka egiten; baldintza agiriak eskatzen duena, erredakzio taldea gutxienez goi mailako arkitekto bat (erredakzio taldeko zuzendaria) eta aparejadore batek osatu dezatela da. Eskaera hau guztiz justifikatuta dago, baldintza teknikoen agirian azaltzen denez, proiektuak inguruko espazioaren antolaketa erabaki beharko baitu, inguruarekiko integrazio arkitektonikoa bilatuz.

Eraikuntzaren azaroaren 5eko 38/1999 Legeko (azaroaren 6ko 266 zenbakidun EAO) 2, 10 eta hauekin bat datozen artikulua **KONTUTAN HARTUTA**.

KONTUTAN HARTUTA Auzitegiaren Jurisprudentziak, proiektu baterako zenbait teknikoren ahalmen profesionala onartzen duen kasu batzuetan ere, prozeduran tekniko horien partaidetza ezinezko egiten ez duten lehiaketa baten oinarriak inpugnatzen dituen dagokion bazkunak jarritako errekurtsioa ezetzi egiten duela, oinarri horietan pertsonalki edo talde multidisziplinarietan aurkez daitekeela onartzen bada, eta azken kasu honetan taldeko buruaren titulazioa besterik eskatzen ez bada. Hau guztia, Administrazioak banakako partaidetza titulazio bati eta taldekoa honen buruaren titulazioari mugatzean, garatu beharreko objetuan oinarritzen baldin bada, beti ere titulazioaren baldintza hau jarritako gainerantzeko baldintzak betetzeko beharrezko suertatzen denean. Baina ezin esan daiteke desberdintasunik edota arbitrarieratik sortu denik, Administrazioak legez eta objetiboki garatu beharreko jardueraren baldintzen arabera eta bere beharrezko arabera zehaztu bait ditzake bere betebeharrak era zehatz eta zuzenago beteko dituzten alde profesionalak (Andaluziako Justizia Goi Auzitegiko Sententzia, Sevilla, 2008ko martxoak 4 JUR 2008/304434).

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, aho batez **EBAZTEN DU**:

Lehenengo.- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarren Kolegioak urtarrilaren 13ko 7. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ajangizko Udal batzak 2008ko abenduaren 22an onartutako Ajangizko estalitako frontoi berria eraikitzeko proiektuaren



Ajangizko Udala

erredakzioa eta kasua bada lanen zuzendaritzarako kontratua esleitzeko proiektuen lehiaketa prozedura murriztuaren hasiera eta berau arautuko duten baldintza administratibo partikular eta teknikoen onarpenaren aurka jarritako errekurtsua ez onartzea.

Eskaintzak aurkezteko epea etentzeko eskaera ez onartzea, errekurtsua jartzerako dagoeneko bukatua zena, eta kontratazio espedientearekin aurrera egitea.

Bigarren.- Ebazpen honen berri errekurtsu jartzaileari ematea, egintza honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakeela ohartaraziz administrazioarekiko auzitarako Bilboko dagokion epaitegian, jakinerazpen hau jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zortziak eta hogeirenean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA